

BERRIGARA

33. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, ekainak 13

Bailarako promozioa

Turismo Ekintzetarako Zentrua
Bergarara ekartzeko asmoa



Renault kontzesionarioa



RENAULT



ARRASATE Tf. 79 59 99



Karhu bermuda, lur kolorea 3.350 PTA
 Karhu kamiseta, urdina 4.990 PTA
XAMARTIN KIROLAK
 Ibargarai, 20

Beltzarantzeko olio-krema naturalak
1.175 PTAtik aurrera
HURBIL DIETETIKA DENDA
 Telesforo Aranzadi, 2



Sandaliak
 Avia gorriak 2.340 PTA
 Narruzkoak 2.650 PTA
LAZKANO OINETAKOAK
 Barrenkalea, 15-17



Samsonite bidai maletak 16.520
 PTAtik aurrera
CARMEN GARATE POLTSAK
 Bidekurutzeta, 15

Uda hemen da. Zeuenean.

Udarako beharrian
 dituzuen gai
 horiek erraz
 eskuratzeko modua
 eskaintzen dizuete
 komertzio hauek.



Bikinia edo bainujantzia
5.695 PTA
IGARZA MERTZERIA
 Irala, 5



Udako eskaintza: estudio
 argazkiak 4.500 PTAtik aurrera
FOTO ALBENIZ
 Ibargarai, 12

Kalitatez.
 Eta zeuenetik
 bi pausora.
 Ez dago
 aukera hoberik!



Lift Minceur argaltzeko gela
4.900 PTA
IGARO USAINDEGIA
 Barrenkalea, 35



Ipuinak 575 PTAtik aurrera eta %40ko beherapena
MARCÓ PAPERDENDA
 Bidekurutzeta, 44



Bidaia-poltsa 5.500 PTA
GARATE 2
 Zurradero, 4

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Iñaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketa:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.500 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen auzidarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


ALFONSO ALONSO

Udaltzain burua

- Zer gertatzen da etxeko gas instalazioak ikuskatzen dituzten enpresekin?

- Urtero urtero etxeko gasaren instalazioen errebisioa egiteko enpresa pare bat azaltzen dira herrian. Normalean enpresa horiek kanpokoak dira eta herritarrek konfiantza osoz atek zabaltzen dizkiete. Baina presio erreguladorea aldatzeagatik adibidez, hemengo enpresek baino diru dextente gehiago kobratzen dute. Faktura ikusi ondoren, herritarren kezkek sortzen dira, ikuskapena derrihorrezkoa ote zen edo kobratutakoa zuzena den galdetuz. Kontua da enpresa horiek legalak direla baina besteak baino garestiagoak ere bai.

- Gomendiorik?



- Inor ez dago behartuta enpresa horien ikuskapenak onartzera eta seguraski kontratatuta daukagun gasaren banatzaileak askoz merkeago egingo luke (iturkinek ere ikuskapenak egiteko ahalmena daukate). Beraz, norberaren gasaren banatzailearekin egon aurretik beste edozein enpresaren ikuskapena ez onartzea gomendatuko genuke.

“Edozein ikuskapen onartu aurretik onena gasaren banatzailearekin kontsultatzea da”

I T U R R I O N E T I K

San Pedro egunean inauguratuko da Gorkako kantina berria

Gorkako kantina datorren ekainaren 29an, San Pedro egunean zabalduko da publikora. Kantinak Belatz izena izango du eta inaugurazio ekitaldian hainbat aktuzio izango dira. Besteak beste, bertsolariak, trikitilariak eta beharbada ardi txakurren erakustaldi bat egingo dira Gorkako kantuan egun horretan. Hasiara batetan asteko egun guztietan zabalik izango da Belatz kantina eta bertan plater konbinatuak ere eskeiniko dira. Kantina goizez eta arratsaldean izango da zabalik. Gorkako kantina egin zenetik urtebete baino gehiago igaro da dagoeneko eta azkenik, San Pedro egunean irekiko ditu atek.

E S A N
D U T E

“Bailarako turismoa bultzatu eta promozionatzeko Turismo Ekintzetarako Zentruaren garrantziaz kontziente da Udala. Era berean, potentzial turistiko sendoa duen herri batean kokatu behar dela uste dugu. Eta dituen errekurtsoak, egiten diren ekimenak eta enpresa pribatu zein udalaren laguntzagatik, Bergara leku egokia da”

VICTORIANO GALLASTEGI

Bergarako alkatea
EL DIARIO VASCO

“Zuzeneko igoera lortzeko Eibarri gauzak konplikatu zaizkio baina promozioa jokatzea posible ikusten dut. Aurreneko postuetan ibili eta gero laugarren edo bosgarren postuan amaitzeak pena emango lidake. Afizioarentzat frustrantea izan daiteke baina ideia hau albo batera laga eta, azkenean saririk ez bada lortzen ere, egin duten denboraldi bikaina txalotu behar da”

JUANJO ARRIETA

Eibarreko entrenatzaile
izandakoa
EL DIARIO VASCO



LA GUERRA DE LAS GALAXIAS

Eguakitz: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.



EL CRISOL

Larunbata: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



TERRITORIO COMANCHE

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ Bere estreinutik 20 urte igaro ondoren, **George Lucasek** idatzi eta zuzendutako filmea pantaila haundian ikusteko aukera berria. Trilojiaren lehendabiziko atal honetan, **Leia** printzesa (**Carrie Fisher**) bahituta izan ondoren, **Luke Skywalker** (**Mark Hamill**) eta **Han Solo** (**Harrison Ford**) justizia berriz ezartzeko borrokatu beharko dute...

▼▼ **Arthur Miller** idazlearen "*Las brujas de Salem*" antzerki lanean oinarriturik, XVII. mendeko Estatu Batuetan kokatzen da filmea. Salem-go herritarrak Jainkoaren zerbitzura bizi diren bitartean, gazte talde batek gizarte zapaltzaile horrekin apurtu nahi du. **Abigail** gazteak (**Winona Ryder**) **John Proctor** (**Daniel Day Lewis**) bere maitalearen andrea hil nahi izango du...

▼▼ **Gerardo Herrero** zuzendariak (*Malena es un nombre de tango*) mundu zabaleko konfliktoetan izaten diren erreportarien mundua islatu nahi izan du oraingoan, **Arturo Perez-Reverteren** nobela arrakastatsua abiapuntutzat harturik. Bi erreportarien ikuspegitik (**Imanol Arias** eta **Carmelo Gomez**) Bosniako egoeraren berri izango dugu.

Deiak

▼ **Mendi irteera.** Alpino Gorkak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak ekainaren 21ean eta 22an Carrionera joateko irteera antolatu dute. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Benita Gallastegi** bergararren oleo erakusketa Nahikarin ikusgai ekainaren bukaerara arte.

▼ **Jon Balentziagaren** margoak eta eskulturak Arrasateko Aita Menni ospitalean ekainaren 20ra arte.

▼ **Jam aretoa.** Gaur ostirala, 22:30etan, Medina Azahara taldearen kontzertua. Sarrerak 1.500 pezeta. Bihar zapatua, Amnistiaren Aldeko Komiteak antolatuta, Anje Duhalderen emanaldia 23:00etan (1.000 pezeta). Ondoren *Igo bolu-mena* irratsaioko lagunekin disko-teka saioa.

Ogia

▼ **Domeka 15:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitz 13:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 14:** Estella.
- ▼ **Domeka 15:** Estella.
- ▼ **Astelehena 16:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 17:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 18:** Puy.
- ▼ **Eguena 19:** Guallar.

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

Ion Andoni Urisabel

Ekainaren 20tik bere azken lanak Kultur Etxean

Arte Ederretan lizentziatua, Ion Andoni Urisabel margolari bergararrak (25 urte) azken bi urteetan egindako lanak erakutsiko ditu Kultur Etxeko erakustokian datorren ekainaren 20tik 29ra bitartean.

- Zelako koadroak ekarri dituzu Kultur Etxera?

- 30 bat koadro dira denera eta gehienak tamainu ertainekoak baldin badira ere, tamainu handiko koadro pare bat eta nahiko txikiak diren beste hainbat ere egongo dira ikusgai. Margotzerakoan paisaian, grafikoetan, mapetan edo inkesten emaitzak azaltzeko egiten diren "gazta" horietan oinarritu naiz. Koadroetan objektiboak diren gauzak kolokan jartzen saiatu naiz. Zientzietan helburu artistikorik gabe errepresentatzen diren gauzak interesatzen zaizkit batez ere.

- Aurten Zornotzako bienalean saritua izan zinen. Horrelako sariak laguntzen al dute?

- Lagundu diru aldetik bai, baina bestela... Hemen oso nekeza da pinturatik bizitzea eta egunean



Argazkian, Ion Andoni Urisabel margolari gaztea Irizar Jauregiko estudioan.

bizi beharra dago. Denbora-dirua erlazioa oso inportantea da eta horrela ibiltzen naiz; bekak jasotzeko eskaerak eginez, hainbat lehiaketara aurkeztuaz...

- Zela baloratzen duzu Leioako Fakultatean egiten den lana?

- Bakoitzaren arabera izaten da. Leioan 1.700 la-

gun ari dira ikasten baina dagoen espazio eta materiala kontutan hartuta, 1.000 lagunentzako tokia bakarrik dago. Beraz, lan egiteko gogoia duenak aurrera egin dezake, nahiz eta lan egiteko baldintzak oso onak ez izan. Hala ere, fakultateko gauzarik onena interes berdinak dituen jendearekin elkar-

tzen zarela litzateke, aberasgarria da elkartrukea.

- Egunero margotzeko ohitura daukazu?

- Egunero ez, nahiko irregularra naiz. Baina askotan joaten naiz Irizar Jauregiko lokalera.

- Zein margolariren lanetan fijaszen zara normalean?

- Pintore famatuak gustatzen zaizkit, margolari pilo bat dira gustatzen zaizkidanak baina euren-gandik baino gehiago lagunengandik gauzak jasotzen ditut.

“Azkenaldiko koadroetan objektiboak diren gauzak kolokan jartzen saiatu naiz”

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A**

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Vitoriano, Abajo, Gabilondo... ez zabizte ondo

Joan zen astean, Berrigarán irakurri nuen Gobernu Batzordeak herriko hainbat lekutan agertutako pintaden salaketa egin zuela; hemen salatu beharreko gauza bakarria Udaletxeak gazteekin daukan jarrera da. Gazteen ideiak, iniziatibak, lanerako gogoak oztopatzen eta zapaltzen dituen bitartean, herriari beraren aurpegi polita erakutsi eta batera lotsarik gabe gezurrak asma-tzeaz gain, ez ditu egi guztiak esaten. Nazkatuta gaudenak gu gara, zerbait egin nahi dugunean horra hor non agertzen den gure herriko udaletxea, Abajo, Vitoriano, Gabilondo... fitxajee-kin, zeintzuk ate guztiak ixten dizkiguten.

Eskatuko nioke Udaletxeari gazteekin daukan jarrera aldatzeko, Vitoriano, Gabilondo, Abajo... gazteekin ez zabizte ondo, zuen aldetik, azpijoku gutxiago eta ekintza positibo gehiago nahiko ginituzke. Zuen esku dago.

GAZTE BAT (NAN: 15.400.597)

Bergarako Udalar- zein da bidea?

Joan zen asteko Berrigarán agertzen zen art-ikulo batean, adierazten zen Gobernu batzorde-ak gaitzetsi egiten zuela herriko horma asko pin-tadaz agertu izana, eskaerak egiteko beste bide batzuk egonda.

Pintada hauek Gaztetxearen alde eginda zeuden. Gobernu batzordeak=Udalak, esaten badu hau ez dela bidea, guk galdetzen diegu ea zein den bidea.

Begarako gazte batzuk, joan zen irailean goiko estazioko geltokiko etxea okupatu ondoren, berrizte lanetan hasi ginenean Udalak etxea bota egin zuen. Hori ikusita gazteek Udaletxeko arku-

petara joatea erabaki genuen eta han egon gin-en. Hori ikusita, eta Gabonak gainean zirela, Udaleko ordezkariak guregana etorri ziren eta hitz egin nahi zutela esan ziguten. Gu hitz egitea joan gin-en, eta esan ziguten lokal bat emango zigutela baina arkupe-tatik joan egin behar ginela.

Arkupe-tatik alde egin genuen eta eskaera formal-a egin genuen. Udalarekin harremanetan jarri gin-en, lokal batzuk estudiatzen eta beste bat-zuk ikusten. Handik bi hilabetera esan ziguten guk ez genuela Bergarako gazteria erre-presenta-tzen eta popatik hartzera bialdu gintuzten.

Gero, Udaleko ordezkariak Bergarako ia kolektibo guztiak bildu zituen bilera batean. Gazte-txearen gaian, ia kolektibo guztiak esan zieten Gaztetxearen konturako Bergarako Gazte Asanbladarekin hitz egiteko. Beraz, bilera hartan Udaleko ordezkariak ikusi zuten norekin hitz egin behar zuten. Hori orain dela ia 3 hilabete izan zen eta bien bitartean Udalak ez du ezer egin. Orain, berriz, ke-jatu egiten da pintadak agertzen dire-lako. Orduan, esaten badigute zein den bi-dea Bergarako Gaztetxea eduki ahal izateko, bide hori hartuko dugu, baina bitartean ez daitezela ke-jatu, pintadak agertzen badira.

Herri bat Gaztetxe bat. Gaztetxe gabe pake-rik ez!

BERGARAKO GAZTE BAT (NAN: 72.551.950)

San Martzialeko hondamendia

Dagoeneko eta azken urte hauetako ohiturari jarraituz, zenbait herritar San Martzialen joan zen urtean utzitako mahai hondakinekin konpontze lanetan hasiak dira. Berba asko egin izan da arazo honi buruz eta oker ez banago Udalak bazuen arau bat eginda mahaiak kentzeko epeari buruz. Gutxigora behera arau honek zera zioen: "San

Martzial egunerako jarritako mahaiak, epe labur batean kendu behar zirela, bestela, Udalak berak kenduko zituela".

Zer gertatu da orain arte? Nik zera esango nuke: nola jasoko dituzte San Martzial egunean erabilitako mahaiak (eta epe labur batean zikin-keria eta arriskua bihurtuko dena), mahaiaren ja-beari dagokion lan hori eta dohainik beste inork egiten badio (Udalak)?

Beste alde batetik, Udalak ez du bere araua betetzen eta denok dakigun bezala hain "maita-garri eta ospetsua" den Bergarako txoko horrek zaborte-gi bat dirudi urtean zehar. Izatekotan de-netik daukagu, baita halako kontenedore indus-trial bat ere, erdi erdian! Hau da ganora hau!!

Dirudienegun egun hauetan Udalak argitaratu duen bezala, mahaiak konpontzeko epea ekainaren 23an bukatzen da (adi!), noiztik ezarri da arau berri hau? Eta lehengoa, zergatik ez da betetzen? Izan al dezaket nik, edozein toki publiko-tan eta urte gutxirako mahai "pribatu" bat jartze-ko eskubidea, inongo zerga edo isun bat jaso barik? Ez jakina!!


Ba hori, jaun andreok, San Martzialen gerta-tzen ari da. Jakin badakit txoko horri buruzko proiektu edo egitasmo bat dagoela, baina bitar-tean gauza bat bakarrik eskatzen dut: bete eza-zue sekula bete arazi ez duzuen araua, edo ez laga mahaiak jartzen. Horrela urtean zehar San Martzialeko zelai eta zuhaitzia guztiok gozatzeko aukera izango dugu.

JESUS MARI BARRUTIA

Tiira biraka

Mesedez, pasa 8 zenbakidun burdina

Ni, nahi dudana izango naiz



Joder Seve, egunetik egunera finago!



San Antonioko jaiak astebukaera osoan zehar

Astebukaera honetan jaietan izango ditugu San Antonioko auzokideak. Gaur, ostirala, 19:00etan haurrentzako kukañak izango dira eta 22:30etan, Izar taldearekin dantzaldia. Bihar, berriz, bigarren urteko kadeteentzat txirringulari lasterketa izango da goizeko 10:30etan. Arratsaldeko 4etan, ostera, mus txapelketa jokatu da Hiru-biden eta Bar Canalejasen eta ordu berean San Antonio eta Martokokoen artean herri kirolak jokatu dira; 19:00etan haurrentzako kukañak eta txokolatada izango dira eta gaueko 10etan danborrada; ondoren, Orquesta Mascarada eta Duo Plaentxirekin dantzaldia. Domekan, azkenik, diana izango da goizeko 9etan eta plater tiraketa (Gorlan) 10:30etan; 15:00etan herri bazkaria, eta jaietamaiera emateko haurren danborrada 19:00etan.

HILDAKOAK

Euxebia Gorrotxategi Laskurain
Ekainak 7, 85 urte.


JAIOTAKOAK

Alvaro Jimenez Cabo
Ekainak 5.

Santutxu inguruko lursailak erabili ahal izango ditu Udalak

Udalak eta Elosuko Iriaungo San Andres parrokiak kontratua sinatu dute, Udalak Santutxu inguruko ermita eta inguruko lursailak erabili ahal izateko. Kontratuan argi zehazten denez, Elosuko parrokia da Santutxu inguruko ermitaren eta inguruan dauden lursailen jabea eta doan lagako dio Udalari aisiialdirako eta jolas-toki gisa erabil daitezen. Bergarako Udala arduratu da lursailen garbiketa, zainketa eta mantentze-lanetan eta jatorrizko egoeran zaindu beharko du lursaila, edozein obra edo antzeko lanen bat egiteko San Andres parrokiaren baimena eskatu beharko duelarik. Bestalde, urteko garai jakin batzuetan Santutxu ermitan egiten diren ekintza erlijioso eta elizkizunetarako, Udalak ez du eragozpenik jarriko.

Gogoratuko duzue, orain dela urte batzuk liskarretan ibili ziren Elosuko parrokia eta Udala, lursail horietan Udaleko langileek egin zituzten garbiketa eta konponketa lan batzuek zirela eta. Kontratu honekin eztabaidak alde batera laga eta Udalaren eta Elosuko parrokiaren arteko harremanak normalizatu egingo dira.



Ermita inguruko lursailak aisiialdirako eta jolas-toki gisa erabiliko dira.

Udalbatzarra aho batez onartu zuen kontratua astelehenean.

Deskarga erreka

Plenoan beste gai batzuk ere aztertu ziren, tartean Deskarga edo Uhola erreka bideratzeko proiektua. Udalbatzarra osatzen duten indar politiko guztien oniritziarekin behin-behineko onarpena eman zitzaion proiektuari. Legealdi honetan Udalak aurre egingo dion egitasmorik garrantzitsuenetakoa izango da Antzuolatik datorren erreka bideratzea. Proiektua 256 milioi pezetakoa da, eta Jaurlaritzak eta Diputazioak ordainduko dute.

Jaurlaritzak aurtengo aurrekontuetan 210 milioi pezetako diru partida onartuta dauka.

Erreka bideratzeko lanak, Arregi aroztegiko zubitik Deba ibaira arteko tartean egingo dira. San Antonioko hainbat etxe, tartean, La Parra tabernakoa edota San Antonioko ermita bota egingo dira eta etxe horietan bizi direnei indemnitzazioak ordainduko dizkie Udalak. Lanak datorren urtean hasiko dira eta indemnitzazioak aurreko negoziatzen hasiko badira ere, aurtengo udal aurrekontuetan ez da kalteordain horiei aurre egiteko diru partidarik aurreikusi, hori datorren urterako lagakoa da.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Taxitarako bonuen programa

Udaleko Osasun eta Ongizate Zerbitzuak jakinarazi da taxi-bonuen programa martxan dagoela. Programa honen helburua, mugikortasun arazo larriak dituztelako garraio publikoa erabiltzeko eragozpenak dituztenei beste garraio-bide bat eskaintzea da. Laguntzak ematerakoan baremo bat erabiliko da eta horren arabera erabakiko da bakoitzari zenbateko laguntza-portzentaia dagokion. Gehienez ere, hilean 10.000 pezetako laguntza emango da. Eskaerak, Udaleko Gizarte Zerbitzuan.

San Martzialeko kantina

San Martzial egunean kantina hartu nahi duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeek, eskariak egin ditzakete Udaletxeko idazkaritzan uztailearen 6a baino lehen. Kantina adjudikatzeko baldintza pleguak idazkaritzan bertan jaso daitezke. Lehentasuna izango dute azken bi urteetan esleidunak izan ez direnak.

Gazteen mendi irteera

Pol-Pol Mendizale taldeak Unzillaitzera mendi irteera iragarri du ekainaren 22rako. Irteera goizeko 8:30etan Beheko estazioan izango da eta izena Pol-Poleko bulegoetan eman behar da.

Bideo ikastaroa

Kultur Etxeko Islada bideo gelak bideoaren sarrera ikastaroa antolatuko du uztailearen 1etik 25era bitartean. Egunero emango dira klaseak goizeko 10etatik 12:30ak arte. Ikastaroak 7.000 pezeta balio du eta izena emateko 77 91 58 telefonora deitu daiteke.



Senideak taldeak aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuen udal-batzarrak. ARTXIBOA

Alkateak "Kanto" bergarar presoa Martutenera ekartzeko eskatuko du

Ezkerreko belauneko meniskoa operatzeko

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Gartzelutako erakundearen eta Zaragozako gartzelutako epaile-arekin harremanetan jarriko da Luis Mari Azkargorta "Kanto" preso bergararrari ebaketa egin diezaioten Martutenera Gipuzkoako Eritetxe probintzialera ekarri dezatela eskatzeko. Medikuek beharrezko ikusten duten denboran erreabilitazioa egin dezan Martuteneko gartzelara ekar dezatela eskatuko du alkateak. Udal-batzarrak astelehenean hartu zuen erabakia, Senideak-ek aurkeztutako mozioa aho batez onartu eta gero.

Luis Mari Azkargortari ezkerreko belaunean barne meniskoko kubituan apurketa aurkitu zioten 1995ean eta lesioa konpontzeko meniskoaren interbentzio kirurji-

koa beharrezkoa zela disgnostikatu zioten. Sevillako espetxean zegoela, operazioa egiteko gutxienez urtebete itxoin beharko zuela azaldu zion osasun zerbitzuak eta 96ko apirilean Donostian operatu zezaten Martutenera ekartzeko eskaria egin zuen. Hala ere, Huescako presondegira eraman zuten eta ebaketa atzeratu beharra izan zuen. Une honetan Huescako gartzelan dago eta Donostian operatzeko Martutenera trasladatzea behin eta berriz eskatu arren, trasladoa ukatu egin diote.

Arazoari irtenbidea aurkitu nahian, alkatea Zaragozako gartzelutako epaitegian aurkeztuko da eta Luis Mari Azkargorta Martutenera lehenbailehen ekar dezatela eskatuko du.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

YAZKI
UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargari, 8
☎ 76 54 73

Tavexeko auzian soldata igoera bakarrik negoziatuko da

Langileek horrela erabaki zuten asteleheneko batzarrean


Asteleheneko batzarrean horrela erabaki ondoren, Tavesa eta Algodonerako langileek soldaten igoera negoziatzeko proposamena egin zioten zuzendaritzari, eguastenean egindako bileran. Langileen proposamen amankomuna hauxe da: %5,75eko igoera nominetan eta beste 2,25eko igoera finkatu gabeko nominetan 97ra arte, eta datorren urterako KPIko igoera. Langileek igoera guztiak linealak izan daitezela eskatzen dute eta horrez gain, primak negoziatzerako orduan

96ko batzbestekoa kontutan izatea. Eguen arratsaldean zuzendaritzaren erantzuna jasotzekoak ziren langileak. Astelehenean CCOO, LAB eta UGTk deituta langileen batzarra izan zen Zabalotegiko aretoan. Bilerarako deia egin ez arren, ELAk ere batzarrean parte hartu zuen eta bere proposamena, hau da, biabilitate plana negoziatuz kanpo laga eta soldaten igoera bakarrik negoziatzea onartu zen. 112 boto jaso ziren proposamen horren alde eta 49 kontra.

Kanpoko piszinak gaurtik zabalik

Gaur, ostirala, goizeko 10etan zabaltzekoak ziren kanpoaldeko igerilekuak, honenbestez udako denboraldiari hasiera emanaz. Kanpokoak irekitzearekin batera, barrualdekoak itxi egingo dira eta uda kanpainako ikastaroetarako bakarrik erabiliko dira. Kanpoko piszinak egunero goizeko 10etatik gaueko 9ak arte egongo dira zabalik. Kirol Zerbitzuko karneta ez duten 18 urte baino gazteagoek 375 pezeta ordaindu beharko dute igerilekuetara behin sartzeko eta 18 urtetik gorakoek, osterara, 550 pezeta. 10 bainutarako bonua 3.100 PTA kostako da 18 urtetik beherakoentzako eta 5.100 nagusientzako. Urte osorako karneta eginez gero, bestalde, 9.000 PTA ordaindu behar dute 18 urtetik beherakoek eta 13.800 nagusiek.

Piszinetan alokatzeko dauden 60 hamaken prezioak, azkenik, honako hauek dira: 100 pezeta arratsaldeko 3ak arte eta 200 3etatik gauera arte: egun guztirako hartuz gero, berriz, 300 PTA ordaindu beharko da hama-kako.



Egin 20 urtez

Egin egunkariaren 20. urteurrena ospatzeko antolatuta den erakusketa ibiltaria Bergaran izango dugu datorren astelehenetik, hilak 16, domekara bitartean Pol-Polen. Bertan 33 panel erakutsiko dira, gehienak azken 20 urteotatik aukeratutako Egin egunkariko hainbat azalez osatuak; horrez gain, 6 panel tematiko ere izango dira (Lemoiz, gerra zikina, negoziazioa...), hainbat pertsonairen esaldiak jasotzen dituztenak. Era berean, prentsa idatziak 1977tik gaur egun arte izan dituen aldaketa teknologikoak ebaluatu ahal izango dira.

Erakusketa Pol-Poleko erakustaretoan egunero arratsaldeko 7etatik 9etara izango da zabalik. Zapatu eta domeka eguerdietan ere zabalik izango da. Bestalde, erakusketa dela eta, herri afaria izango da datorren zapatuan, hilak 21, gaueko 9:30etan Artatse elkartean. Aurretik txikiteoa izango da trikitilari eta guzti. Afarira joan nahi dutenek izena eman behar dute eguakitzu baino lehen Arranon, Pol-Polen edo Kortazarren.

Beste herrialde batzuk

Beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutzeko Jardunek antolatuta dituen diapositiba emanaldien barruan, Guatemalari buruzko emanaldia eskainiko du datorren egunean Mikeldi Bengoa bergararrak. "Erresistentzi herri komunikabideak. Guatemalako beste errealitate bat" da hitzaldiaren izenburua eta ordu eta erdi inguruan Guatemalan orain dela bi urte ateratako diapositibak eskainiko dira. Eguenean, 19:30etan, Kultur Etxean.

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03



MUJIKA GOZOTEGIA

BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

Artakale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

GOROSTI

Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi Plaza ANTZUOLA

Musika Eskolako ikasleen kontzertuak

Musika Eskolako ikasleek kontzertu sorta eskainiko dute datozen egunotan Zabalotegiko aretoan. Gaur, ostirala, 20:30etatik aurrera kantuko ikasleen emanaldia izango da; datorren astelehen, martitzen eta eguastenean, oster, instrumentu emanaldia izango da 19:00etan, eta eguenean, ordu berean, kurtso amaierako kontzertua.

Udal Euskaltegian matrikula zabalik


Ekainaren 20ra arte zabalik dago Udal Euskaltegian matrikula egiteko epea. Udako ikastaro trinkoetan maila guztiak eskaintzen dira: Euskalduntzen, Alfabetatzen eta EGA. Argibide gehiago 76 44 53 telefonoan, bulego orduetan.

Mariaren Lagundiko zozketa

Joan zen domekan Mariaren Lagundiko ikastolako jaietan egin zen ikasleek ikas bidaiara joateko antolatutako sariketako zozketa. Zumelagan bi pertsonarentzako afaria, 1.320 zenbakiari egokitu zaio.

Julio Azkargorta zenarentzat urrezko insignia eta Bergarako Hiribildu Agiria

Gaurko omenaldian Jabier Retegi Industria sailburua izango da



Julio Azkargorta enpresa gizona zenari omenaldia eskainiko zaio gaur, ostirala, arratsaldeko 7:30etan Miguel Altuna zaharrean. Omenaldi ekitaldian, Jabier Retegi Industria sailburua, Juan Carlos Loidi abokatu-ekonomilaria eta Juliorekin lan egin zuena, Mikel Lazpiur enpresarioa, Victoriano Gallastegi alkatea eta Jose Mari Larrañaga Miguel Altunako zuzendaria izango dira. Guztiak, Julio Azkargortari buruz mintzatuko dira.

Enpresa gizon bergararrak herrian industria-aren alde egindako lana goraiapatuko dute.

Bestalde, alkateak Bergarako urrezko insignia eta Hiribildu Agiriaren xerokopia emango dizkie Julio Azkargortaren senideei. Jose Mari Larrañagak, Miguel Altunako zuzendariak, oster, 1929.etik 32ra arte Julio Azkargorta ikaste-txean ibili zenean, atez zituen notekin egindako pergamino antzeko bat emango die.

Jubilatuen irteerak

San Joxepe jubilatuen elkarteak Cabarcenora irteera antolatu du ekainaren 26rako. Irteera goizeko 08:30etan izango da eta Cabarcenoko animalien parkea bisitatu ondoren, Astilleron bazkaria izango da (paella, legatza saltsan, postrea eta kafea). Arratsalde partean, oster, Castro eta Laredo bisitatu dira. Prezioa: 3.000 PTA. Bestalde, ekainaren 30ean, San Martzial egunean, autobusa izango da goizeko 11etan San Martzialera igotzeko. 12etan meza emango da eta ondoren hamaiketako izango da. Ordubietan, azkenik, bazkaria Pic-nic erara, honako menuarekin: zopa, bi ogitarteko, postrea eta kafea. Autobusa 200 pezeta kostako da eta

bazkaria, berriz, 1.000 PTA. Bestalde, San Joxepe jubilatuen elkarteak urri inguruan antolatuko duen hamabostaldi kulturala iragartzeko kartel lehiaketa konbokatu da. San Joxepe elkartearen asmoa da jubilatuek gaur egun duten irudia aldatu eta egungo gizartean duten presentzia eta zeregina bultzatzea. Idea hori isladatu beharko da kartelean eta 75.000 pezetako saria jasoko du irabazleak. Lanak uztailearen 14tik 17ra bitartean jubilatuen egoitzan entregatu beharko dira eta irabazlea nor den uztailearen 30ean ezagutuko da. Aurkezten diren lanekin erakusketa antolatuko da Kultur Etxean. Argibide gehiago, jubilatuen egoitzako 76 21 40 telefonoan.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi, 1 Tfnok: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



GUREN
INTURAK
pinturak eta paperak
Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA
Tf. eta faxa 76 33 01


Denok batera presoak Euskal Herrira



Begoña Arana
Etxeko andrea



Roberto Aranzabal
Jubilatua



Txomin Arregi
Jubilatua



Jesus Mari Asula
Langilea




J. Kruz Bengoa
Jubilatua



Roberto F. Retana
Langilea



Juan Irigoien
Jubilatua



Kepa Irizar
Langilea



Tomas Iturbe
Jubilatua




Jabi Larrañaga
Tabernaria



Xabier Larrañaga
Irakaslea



Xabier Mujika
Langilea



Estepan Plazaola
Euskara teknikaria




Lurdes Unamuno
Langilea

**Zuk ere,
nahi baduzu,
adierazi zure
atxikimendua**

**Goian sinatu dugunok geure
egiten dugu ondorengo
eskaera:**

1. Nahi duten euskal preso guztiak,
berehala Euskal Herrira ekarriak izan
daitezela.

2. Gizaki orori bezalaxe, dagozkien
oinarrizko eskubideen aplikazio
integrala esijitzen dugu: gaiso
sendaezinak eta kondenaren 3/4
bete dutenak kalera atera.



Osasuna

Arkakusoak

- Zein animalitan agertzen dira arkakusoak?

- Hemen batez ere txakurretan eta katuetan. Animalia bakoitzak bere arkakuso bereziak dauzka eta oiloenak eta untzienak adibidez txakurretan eta katuetan ere ager daitezke. Euskal Herrian arkakusoak agertzeko baldintzarik egokienak ematen dira, alde batetik %70etik gorako hezetasuna eta bestetik 13°Ctik gorako tenperaturak izaten ditugulako.

- Zeintzuk dira txakurren eta katuen arkakusoen ezaugarriak?

- Oso antzerakoak dira, bakarrik mikroskopioarekin desberdintzen dira. Bistara, gorputz handia eta buru txikia daukate (1-1,5 mm.ko neurrikoak dira), beltz samarrak, zapalak (baina bertikalean daude) eta batzutan tripaldian krema kolorea izaten dute.

- Eta zein da arkakusoen zikloa?

- Arkakuso emeak txakur edo katu gainean arraultzak jartzen ditu (50 bat arraultza egunean,

2.000 inguru bizi guztian) eta txakurak etxe inguruan arkakusoak lagatzen ditu piskanaka-piskanaka, lurrera jausten dira. Hortik larba batzuk irtetzen dira (ez zaie argia gustatzen, fotofobia daukate), ezkutatu egiten dira eta ondorioz etxea garbitzerakoan topatzeko nekezak dira. Eta udazkena eta negua igarotzeko pupa forma hartzen dute kapa-raioi moduko batekin.

“Euskal Herrian, arkakusoak agertzeko baldintzarik egokienak ematen dira”



Arkakusoak txakurretan eta katuetan agertzen dira batipat.



ROMAN LAZPIUR
(Albaitaria)

- Animalietara, zela heldzen dira?

- Arkakusoak, animalien ondotik pasatzerakoan, bibrazioagatik salto egiten dute. Beroa bilatzen dute eta txakurrek eta katuek gu baino tenperatura altuagoa duteenez, beraiengana jotzen dute. Sintomak hauek li-

rateke; hazkura, tripaldian agertzen dira normalean (ile artean) eta agertzen direnean animalien kakak beltzak dira, hare bikor baten tamainukoak.

- Eta nolako kalteak eragiten dizkiete animaliei?

- Odola xurgatzen dute eta arkakusoak dituzten animaliek hazkura izaten dute. Badira arkakusoen pikatadei alergia dieten animaliak ere eta azken hauei lesio fuertek sortzen dizkiete azalean; ekzemak eta holako gauzak. Eta txakurrek edo katuek arkakusoak jatekotan, tenia familiako txitxara bat sortzen zaie (honekin txakurra benetan gaizki jar daiteke).

- Zein da jarraitu beharreko tratamendua.

- Lehen esan bezala, arkakusoen zikloaren zati bat txakur gainean burutzen da eta beraz hori tratatu beharra dago. Eta zikloaren beste zati bat ingurunean izaten denez, arraultzak, larbak eta pulpak ere tratatu behar dira. Horrela, intsektizidak eta IGR motako produktuak erabiliko ditugu urte guztian zehar arkakusoak prebenitzeko. Prebentzioa oso garrantzitsua da. Puparen kontra oraindik ez dago produkturik baina arkakusoen arazoa ia ia %100ean kontrolatu daiteke.

PANA DE ROKUA
JATETXEA
Kontxi Idigoras
Asteburuetan bertako babak eta sabieskia
SALBADOR, 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Turismoa Deba Garaian

Bailara promozionatzeko bulegoa

Deba Garaiko Mankomunitateak datorren urtean martxan jarriko duen Turismo Ekintzarako Zentrua (TEZ) Irizar Jauregian kokatzeko eskakizuna egin du Bergarako Udalak. Azken erabakia uztailean jakin ahal izango da eta Bergarako Udalak Oñati eta Arrasateren konpetentzia izango du TEZaren kokapen aukeraketan.



Mankomunitatearen TEZ bulegoa Irizar Jauregian kokatzeko eskakizuna egin du Udalak.

Turismo Ekintzarako Zentruak bailarako baliabide turistikoak jestionatu eta promozionatuko lituzke. TEZ bulegoa martxan jartzeko ideia orain lau bat urte sortu zen, Mankomunitateak bailarako egoera turistikoaren azterketa egin ondoren. Instituzio publikoak zein sektore pribatuaren arteko kolaborazioa medio, bailarako promozioa egingo lukeen entitate bat martxan jartzea beharrezkotzat jotzen zen. Koldo Azkoitia Mankomunitateko Ajentziako arduradunak argitzen digun moduan, *"berrietan dauden turismo bulegoak eta TEZ bulegoa ezberdindu behar dira. Turismo bulegoak jendeari atenditzeko daude eta TEZak, berriz, turismoa promozionatzeko ekintzak bultzatuko lituzke"*. Gipuzkoan, Tolosan, TEZ bulego bat dago martxan eta Donostian, berriz,

CAT delakoak estropadak edo Aste Nagusiko su artifizialen lehiaketa antolatzen ditu, turismoa erakartzeko asmoz. Azken batean, Turismo Ekintzarako Zentrua bailarako baliabide turistikoak antolatu, garatu eta bultzatzeko jarriko da martxan.

Bailarako promozioa da bulego honekin indartu nahi dena. Koldo Azkoitiaren esanetan, *"aurten, helburu nagusia bulegoaren eginkizunak definitzea, forma juridikoa*

ematea eta plangintza ekonomikoa egitea litzateke eta hurrengo urtearen hasieratik entitate juridiko autonomo gisa hasiko litzateke martxan". Aurtengo aurrekontua 6 milioi pezetakoa da; Jaurlearitzako Turismo Zuzendaritzak 3 milioi ordainduko ditu eta gainontzeko hiru milioiak Mankomunitateko udalen artean. Biztanlego kopuruaren arabera, Bergarako Udalarari 722 mila pezeta ordaintzea dagokio.

Ekimen turistikoak

Deba Garaiko Mankomunitatean, gero eta garrantzi haundiagoa daukate turismoaren inguruko ekimenek; *"turismo mailan ez da politika estruktural bat eraman baina urtero egin dugu zerbait: Deba Garaiko katalogo turistikoa kale-ratu genuen, bailarako turismoa identifikatzeko logotipoa ere bai, hainbat herritan informazio turistikorako panel inte-*

BALIABIDE TURISTIKO UGARI

Eusko Jaurlaritzako Komertzioa, Kontsumoa eta Turismo Saila Euskal Elkarte Autonomoko baliabide turistikoaren inbentarioa kaleratzear dago. Bertan hiru probintzietako 605 baliabide turistiko aukeratu dira eta horietatik 45 Bergarakoak dira. Besteak beste, hauek dira herriko baliabiderik preziatuenak adituen ustetan: San Pedro, Santa Marina, Angiozarko Parrokia, Irizar Jauregia, Olaso Dorrea, Arostegi Etxea, Ozaeta Jauregia, Acedo Loiola Etxea, Gabiria Dorrea, Moiuia Dorrea, Izagirre-Moia Etxea, Jauregi Etxea,

Seminarioa, Udaletxea, San Martin plaza, Arrese Etxea, Ondartza Etxea, Moiuia-Zuloaga Etxea, Eginio-Mallea Etxea, Laureaga Etxea, Agirrebeña Etxea, Kartzela Zaharra, Agarreko Garaia, hainbat ermita eta baserri, irteera pare bat egiteko (Gorla eta Elosu aldean) dagoen aukera ere aipatzen da eta, azkenik, ospakizunen artean, Erramu Zapatuko Feria aipatzen da baita. Oraindik ere ez da Jaurlaritzak landutako inbentarioa erabat osatu eta baliteke azkenean herriko beste baliabide pare bat ere inbentarioan sartzea.

raktiboak jarri ditugu, eta horrelako beste hainbat proiektu bultzatu ditugu” aipatu digu Azkoitiak.

Orain, TEZ bulegoa martxan jartzeko agente pribatuak eta turismoaren sektorearen inguruan mugitzen direnak ere inplikatu nahi dira eta Azkoitiak esaten digunaren arabera, *“eszeptikoak eta*

proiektu honetan itsu-itsu sinisten dutenak ere aurkitu ditugu. Oraindik ere turismo arloan zeregin haundia dago eta horretarako pertsonak eta dirua behar dira. Orain dela lau urte baino askoz hobeto gaude azpiegitura mailan eta aurrera begira perspektiba onak ikusten ditut, ez dut esaten turismoa lehenbiziko sek-

torea izango denik baina lan polita egin daiteke arlo horretan bailara mailan”.

Irizar Jauregiaren aukera

Esan bezala, Udalak TEZ bulegoaren aldeko jarrera azaldu zuen hasieratik baina Xabier Aranburu udal museologoaren

hitzetan, *“lebenbizi TEZ bulegoaren estatutuak erredaktatzea eta funtzionamendua are arauak zehaztea beharrezkotzat jotzen dugu eta, era berean, plangintza ekonomikoa egitea. Eskualde guztiko promozioa egiteko ondo etorriko da horrelako bulego bat eta, nagusiki, herri bat baino gehiago inplikatzin dituzten proiektu eta proposamenetan lan egin beharko du”.* Udalari TEZ bulegoa Bergaran egotea ere interesatzen zaio. Bergararekin batera, Oñati eta Arrasateko udalek ere TEZ bulegoa euren herrietan kokatzeko eskaera luzatu diote Mankomunitateari.

Oñatik Santa Ana lehenengo konbentuko lokal bat proposatu du eta Arrasatek, bestalde, IMI zaharreko egoitzaren kandidatura aurkeztu du. Azken erabakia Mankomunitateko ordezkariak uztailean egingo duten batzarrean hartuko da. Batzar horretan Arrasatek lau ordezkari izango ditu, Oñatik eta Bergarak hiru ordezkari, Aretxabalek bi eta Leintz-Gatzagak, Eskoriatzak, Elgetak eta Antzuolak, ordezkari bana. Xabier Aranbururen ustetan, *“TEZ bulegoa, turismoa bultzatzeko eratzen bada, turistikoa den herri batean egon behar dela uste dugu, hau da, monumentuak, hotelak, jatetxe onak edo turismo bulegoa eskeintzen dituen herri batean. Tradizio turistikoa, baliabideak, errekursoak eta potentzialitateak dituen herri batean egotea komenigarria litzateke eta Bergarak behintzat baldintza horiek betetzen ditu. Egia da beste herri batzuk hor daudela; De-*



Etxe Haundi, Jaurlaritzako Turismo Zuzendaritzak nabarmendutako baliabide turistikoetako bat.

ba Garaian turismoa bultzatu zuen lehen herria Oñati izan zela, baina derrigorrez Oñatin kokatu beharra dago? Eta Arrasaten bailara erdian dagoelako, kokapen ona daukalako? Arrazoa nagusia hori bada, orduan goazen ekimen denak Arrasaten egitera eta denak bertara bizitzera. Bergara oso ondo dago TEZ bulegoa hona ekartzeko eta, gainera, Irizar Jauregia leku zentrikoan dago. Bulego handia eta polita egin daiteke Irizarren". Azkenean TEZ bulegoa eskuratzen duen herriak debalde jarriko du lokala.



Turismoa indartzeko lan dexente egin da Bergaran. ARTXIBOA

azken urtean bi hotel eta pentsio bat ireki dira herrian. Aurrerapausu handia eman da zentzu horretan eta lehen premiarik nagusia hotelena baldin bazen ere, gaur egun Bergara ondo seinalizatzea falta zai-gula esango nuke. Bergara Euskal Herriko gida turistiko guztietan agertzen da orain eta hona etortzen diren bisitariak ondo zaindu behar ditugu. Horrela, seinalizazio turistikoa egitea oso inportantea da: herriko sarreretan Bergara herri monumentalak dela aipatzea, turismo bulegoa non dagoen seinalizatzea edo herriko monumenturik inportanteenak non dauden ondo markatzea, bisitariak erraz aurki ditzaten. Hori da orain bemen egiteko falta zai-guna". Helburua nagusia, bisitariak jaso eta Deba Garaiko bailara kanpoan ezagutzera eman.

Turismoaren garrantzia

Xabier Aranburuk adierazten digunez, "Bergaran lan dexente egin da turismo mailan azken urtetan. Hemen eskeintzen dugun turismoa turismo kulturala da eta azken urtetan etxeak berri-zenen diru pilo bat gas-tatu da Bergaran. Herri barrua edo kasko historikoa berri-zenen plan bere-ziaren proiektu definiti-

boa erredaktatuta dago eta fatxadak berri-zenen dirulaguntzak ere bultzatu dira udalaren partetik. Udala turismoaren gaiarekin oso inplikaturik dago. Eta jende guztiak errekonozitzen dituen

baliabide turistikoak oso inportanteak dira".

Orain lau urte Bergarako turismo egoera bestelakoa zen. Aranburuk gogoratzen duenez, "lehen hotel mailan adibidez ez genuen ezer eta

"TEZ bulegoa turistikoa den herri batean egon beharko litzateke eta Bergarak baldintza guztiak betetzen ditu" XABIER ARANBURU

Pack Joven

16.900 pta. -gatik bakarrik

- 6 hilabete-tarako botatzeko kontaktu-lenteak.
- Bi poto, soluzio bakar-rekoak (ReNu 500 ml.)
- Lente-tarako kutxatila.
- Eta Walkman bat oparizat

MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.

Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekar-gu barik.

GAZTE TXARTELA

GAZTE TXARTELA baldin badaukazu, erabi ezazu MultiOpticas-en.

LORTU EZAZU MULTIPTICAS-en "TRAVEL CLUB" PROGRAMAKO PUNTUAK

EGUZKI MODA, MODAKO JENDEAREN TZAT

Eguzklaren areara hurbildu eta marka ezazu tanto bat.

CHRISTIAN DIOR • GIANFRANCO FERRE • OXIDO • BURBERRY'S • POLICE • VOGART • ANGARO • STING • BENETTON • AVENUE • SISLEY • LOIS • TRAFFIC • XS • PACO RABANNE • RAY-BAN • SILHOUETTE • GIULIO TABACCHI • VOGUE • DUCCI

MultiOpticas-eko eguzki bildumekin mundu guztia pasarelan dago.

MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN **1a**

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA : Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - BERGARA
 Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - ARRASATE
 J.M. Barandiaran Enparantza - Tel. 88 99 88 - ORDIZIA
MULTIOPTICAS EIBAR : Bidebarrieta, 2 - Tel. 20 05 22 - EIBAR

Urtean zehar ospatzen diren nazioarteko egunak zerbaitetarako balio dute?



Arantxa Alberdi

Nik uste dut ez dutela ezertarako balio. Eguna pasatzen da eta kitto. Hurrengo egunerako jendea ahaztuta dago gogoratu diguten arazoarekin.




Maribel Andueza

Ez nago ziur baina beharbada arazoaren kontzientzia piskat hartzeko baliogarriak izan daitezke. Ondo daude, noizean behin dauden arazoak gogorarazteko.



Francisco Navas

Nire ustez egun bereziak dira horiek, beharrezkoak dira jendeak dauden arazo berri izateko, bestela nekez enteratzen gara.



Ander Aguila

Nik behintzat ez diet kaso haundirik egiten horrelako egunei, baina beharbada beste jende batendako ondo datoz, kontzientzia hartzeko adibidez.



Luis Madariaga

Inportanteak ez dira ba izango! Egun sinbolikoak dira baina niretako balio handia daukate, zenbat eta gehiago egin hobe, kontzientzia hartzeko gutxienez.



Luisa Carrasco

Jendea zerbait kontzientziatzeko ondo daudela uste dut. Nire kasuan behintzat, horrelako egun bereziek izaten dute bai eragina.

ANTZUOLAKO BERRIEMALEA HARTZEKO DEIALDIA

Berrigarak eta Idolaz Euskara elkarteak,
Antzuolako gehigarriarako *berriemalea* hartu nahi dute.

ZER ESKAINTZEN DA:

- Berrigara eta Idolazen arteko hitzarmenak irauten duen bitartean, Berrigarako kolaboratzaile lanak egitea.
- Kolaboratzaile eskaintza honen iraupena sei hilabetekoa izango da, eta Idolaz eta Berrigararen arteko hitzarmenak indarrean jarraitzen duen bitartean lan eskaintza hau luzatzeko aukera izango da.

FROGETARA AURKEZTEKO BALDINTZAK:

- Antzuolan bizi edo bertakoa izatea.
- Euskara, ahoz zein idatziz, ondo menderatzea.
- Gida baimena izatea edo, izan ezean, 6 hilabeteko epean ateratzea.

FROGETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK:

- Interesatuak, lan esperientziaren berri jasoko duen Curriculum Vitae eta bertan adierazitako merituen egiaztagiriak Antzuolako Udal Liburutegian edo Antzuolako Udaletxeko Euskara Zerbitzuan entregatu beharko dituzte.
- Aipatutako dokumentuak aurkezteko azken eguna ekainaren 26a izango da.

FROGA EGUNA ETA TOKIA:

- Berriemalea aukeratzeko azterketa ekainaren 28an, goizeko 10etan, egingo da Berrigara astekarian.
- Informazio gehiago eta deialdiari buruzko zehaztasunak Berrigara astekarian jaso daitezke.



Haurrak, zertarako?

Notizia Bolibiatik datorkigu. 3.500 haur indigena desagertzen direla hilero. Bidea aztarnarik utzi gabe egiten da. Ez da gaurko kontua. Nazioarteko erakundeek jakin ongi dakite. Duela hogeita hamar bat urte Bogotan geundela, bertako sendagile ospetsu batek esan zigun: "Gizateriak baleki, gure herritik, Kolonbiatik, eta orohar Ertamerikatik zenbat haur saltzen diren Estatu Batuetara eta Europara bereziki, eta baleki zertarako erabiltzen diren kontzientzi epelak astinduko lirateke".

Zertarako eramaten edo lapurtzen diren esatea gogorregia da. Narraziorik gabe izenak erabiliko ditugu soil-soilik: giltzurruna, gibela, begiak..., gorputzeko zatiak, organoak kendu merkatuan saltzeko dirutza ikaragarriak eskuratuz.

Milaka eta milaka haur saltzen dira urtean. Amari altzotik kentzen diote diru pittin baten truke. Ekuadorren, esate baterako, duela urte batzuk ehun bat mila pezetagatik haurra eros zitekeen. Beharbada orain gauza bera merkeago egin liteke. Gai-nontzeko tokietan berdintsu izango da.

Merkatuan haur horren giltzurruna milioitik gora pezeta ordaintzen da. Erosi eta abereak bezalatsu hiltzeko. Hortatik bizi da hainbat jende. Eta eginkizun horretan ari dena ez da jende arrunta goi mailakoa baizik, politikoa, gobernukidea, parlamentarioa eta abar. Erakunde mafiosotan antolaturik egiten dituzte krimen guzti horiek. Organoak ateratzeko eta bestelako destino-rik ere izaten dute: lanean esplotatzeko. Eta kasu onenean, seme-alabatzen hartzeko ere bai, adoptatzeko hain zuzen. Hau guztia horrela izanik, herrialde "aurreratu" gobernua, legebiltzar, erakunde, alderdi, sindikatu..., eta eliza bera eztabaida txatxuetan entretentitua. Fidel Castrok salatu zuen: "gure gartzeletan traidoreak daudelako munduko gobernuek zurikeriz beterik zalapartaka hasten dira eta milaka haurren salerosketa eta paraderoaz ez dute deus egiten eta txintik esaten".

Andres OSA "SAKONA"



Errusiatik, maitasunez

OTANek eta Errusiak duela aste batzuk sinatu zuten hitzarmenak urtu egin omen ditu Gerra Hotzaren eta azken hamarkadetan kontinentearen historia markatu duen blokeen politikaren azken hondarrak. Baliteke hala izatea, baina ohituta geunden elementu ia sentimental batera ere, eta askorentzat, horixe desagertu da. Dibertigarriagoa zen guri begira dauden misil kontinental eta interkontinentalez berba egitea, erorita dagoen eta barne krisien eraginez arriskutsu den inperio nuklear bati laguntza ekonomikoak ematea baino.

Clintonek eta Yeltsinek Parisen elkarri bostekoa eman ziotenetik, deskafeinatuta geratu dira espiei buruzko filme eta nobelen argumentuak. "Errusiatik, maitasunez" oroitzen hutsa izango da, izan ere, gidoigile edo idazle gutxi ausartuko da egoera berria jaso, satirak idatzi edo besterik gabe horrekin irakurle-ikusleari denborapasa eskaintzera. MI-5, KGB edo CIAren siglak beldurgarri egiten zituzten trama korapilatsu haiek, aldatu egin beharko dute eskenatokia.

Nostalgia apur batez begiratuta, dibertigarriagoa ziren agente bikoitz gogor eta argi haiek ordenadorearen aurrean eseritako yuppiak baino. Gidoigileek Europatik kanpoko beste paisaia batzuetara eramango dute tentsio dramatiko eta konplikatu izango da Sofia, Budapest, Praga edo Moskun mikrofilme bat pasatzen ikustea. Dolarraren errealitatea nagusitu egin zaie borroka ideologikoei. Inperio ekonomikoek erabiliko dute aurrerantzean "onura lortzeko edozerk balio du" esaldia eta gure espia maiteek masterren bat egin beharko dute, sistemen analista gisa lanean hasteko. Pistola eta egiaren sueroa kajoian gorde eta garai hobeen zain geratu behar.

Juan Antonio MIGURA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

INGELES FRANTSES ALEMANA

MATRIKULA ZABALIK! LANGABETUENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK

Ekainaren 23tik uztailaren 11ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK: HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.

INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



■ Errioxan

Denboraldiari amaiera emateko, **Bergara K.E.ko bi futbol talde nagusiek** (35 bat lagun) ohiko irteera egin zuten zapatuan Villabuenara, Errioxara. Goizeko 11etan heldu eta Marin anaien bodegan hamaiketako egin ondoren, herrian buelta bat eman eta pilotan ere aritu ziren bertako Frontoian. Jarraian ardoz ondo bustitutako menua dastatu zuten, patatak errioxar erara eta txuletillak. Bazkalosteko mus txapelketan, berriz, **Joseba Larrañagak** eta **Iñaki Arrietak** osatutako bikoteak irabazi zuen. Handik bueltan, Pizsinetan afaldu eta juergan jarraitu zuten.



■ Hori umorea

Iñaki Rubiok (ezkerrean) eta **Miguel bere anaiak** TVE1eko *Muchas gracias* umorezko saiorako grabazioa egin zuten aurreko astean Bartzelonan. Iñakik eta Miguelek (*Los mellizos del Norte*) saio bereko kanporaketa bat irabazi zuten aurreko batean baina aurrefinaletan ez zuten finalerako txartela lortzerik izan, laugarren postuan sailkatu baitziren (hiru lehenak sailkatzen ziren). Bibi Andersenek aurkezten duen programa ziurrenik ekainaren 27ko ostiraletik aurrera emango da eta Iñaki eta Miguel bi aldiz ikusteko aukera izango dugu. Aurretik ere Antena 3eko *Genio y figura* saioan agertu ziren Miguel eta Iñaki eta urtean zehar hainbat gala eskeini dituzte Gipuzkoako hainbat tokitan. Udan ere emanaldiak eskeintzen jarraituko dute eta euren asmoa irail aldera *El semaforo* saiorako gonbidapena lortzea litzateke. Eutsi umoreari!!



Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: baligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



■ Zilarrezko eztaiak

Antzuolako 12 bikotek beren ezkontzaren **zilarrezko eztaiak** ospatu zituzten joan zen zapatuan. 24 lagunek bazkari ederra egin zuten Leku Berri jatetxean


elkarrekin igarotako 25 urteakcelebratzeko. Bidalitako argazkian agertzen diren bikoteak hauek dituzue: Antonio Deogracias eta Juli Horrillo, Juan Jose Azkarate eta Mila Larrea, Jose Luis Zabalo eta Begoña Murgiondo, Jesus Arregi eta Kili Garcia, Juan Ignacio Zuloaga eta Ana Agirrebaltzategi, Eugenio Lopetegi eta Mariasun Aranguren, Ignacio Garcia eta Eusebi Zubikarai, Patxi Azkarate eta Begoña Egaña, Epi Perez eta Mari Karmen Alkorta, Jose Mari Lezeta eta Arantxa Urzelai, Juantxo Otaegi eta Mari Aguado eta Fernando Agirre eta Mariasun Ena. Guztiek primerako eguna igaro zuten eta bazkalostean Gezalaga anai-arrebek giroa oraindik gehiago alaitu zuten soinuarekin. Zorionak guztie!!

■ Tximistorratza

Ikusmina sortu zuten martitzenean Frontoiko etxe berrietan kupula eta tximistorratza jartzeko lanek. Goizeko 9ak aldera hasi ziren lanak eta hiru bat ordu iraun zuten. Piramide hexagonal baten forma duen kupula, grua ikusgarri baten laguntzaz igo zen 5. pisuraino eta kupularen goialdean tximistorratza jarri zen. Kupulak kobre kolorea baldin badu ere, piskanaka berde ilun kolorea hartuko du. Era berean, lehengo **Eguzkialde** txaletean zegoen beleta bera jarri zen martitzenean; oraingoan, beletako oilarrari errodamenduak jarri zaizkio bira egin ahal dezan.



Zertan dihardute ba?



Jose Antonio Igartuak apaiz egin zeneko urrezko eztaiak ospatuko ditu domekan. Oñatikoa jaiotzez, txikitari etorri zen Bergarara eta apaiz ikasketak Saturraranen, Bergaran eta Gasteizen egin zituen, duela 50 urteko San Pedro egunean apaiz ordenatu zutelarik. Orduetik Moredan (Arabako Errioxan), Bergarako Ospitalean, Elgetan eta Santa Marinaran bete ditu apaiz lanak. Gaur egun, 73 urterekin, Sierbetan, San Lorentzon eta Santa Marinaran ematen du meza. Domekan Santa Marinaran Meza Nagusia emango du 12etan eta ondoren omenaldi bazkaria izango da Antxonin.

LIZAR
ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...
Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Begoña Arzelus

Txikitatik zeukan bokazioari jarraituz, Begoña Arzelusek ileapaintzaile ikasketak egin zituen Zarautzen eta 1984tik Matxiategiko Iletxo ileapaindegian ari da lanean, beste bi lagunekin batera.

- Emakume ala gizon gehiago etortzen dira?
- Emakumeak, baina gizonak gero eta gehiago.
- Zer nahi duten badakite ala zeuk gomendatzen diezu?
- Denetik, baina guztiei gustatzen zaie aholkuak entzutea.
- Ilea ondo izateko gomendiorik?
- Txanpu onak erabili eta noizean behin ilea moztu.
- Zuk zeuk zenbatero mozten duzu ilea?
- Aspertzen naizenean, segun...
- Eta zeinek mozten dizu?
- Ahiztak.
- Ile kolorerik politena?
- Gorriskak
- Tintatzekotan, kolore bat?
- Morea edo berde iluna.
- Ile motza ala luzea?
- Biak. Momentuaren arabera...
- Ile kizkurra ala lisoa?
- Orain lisoa nahiago.
- Zer da orain modan dagoena?
- Melena motzak eta ile motza.



“Bezero gehienek aholkua eskatzen digute. Bergarako emakumeok oso pinpirinak gara, gizonezkoetan denetik dago. Lan gehien udaberritik aurrera izaten dugu”

- Bergararrok ondo orraztuta joaten gara?
- Neskak bai, oso pinpirinak gara. Eta mutilen artean denetik dago.
- Ondo orraztuta doan pertsona ezagun bat.
- Judith Masco.
- Eta nori aldatuko zenuke orrazkera?
- Albako Dukesari.
- Noiz izaten duzue lan gehien?
- Udaberritik aurrera.
- Atsedean egunean zer egiten duzu?
- Umearekin ibili eta konprak egin.
- Hobby bat?
- Puntokruza egitea.
- Filme bat?
- La lista de Schindler.
- Aktore bat?
- Kevin Costner.
- Liburu bat?
- El hombre que susurraba al oido de los caballos.
- Udan, hondartza ala piszina?
- Piszina.
- Bainujantzia ala bikini?
- Bainujantzia.
- Gustoko hondartza bat?
- Getariakoa.
- Solariumera joateko ohiturarik?
- Bai, joaten naiz.
- Udari begira, dietarik?
- Hasi bai baina...
- Kirolrik egiten duzu?
- Ez.
- Oporretan, zer?
- Bergaran geratuko naiz.

Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
 Simon Arrieta, 3

FRANTSES
IRAKASKUNTZA
Ikastaro trinkoak
uztailaren 2tik 22ra

Izena emateko epea:
 ekainaren 27ra arte.

Informazio gehiago:
 Mizpildi,3 1. ezkerre. Bergara.
 Tf. 76 30 55
 Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Matxiategin.
☎ 76 56 99.

Apartamentua salgai Laredon. 4. pisua, igogailua. 6,5 milioi. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 54 86.

Etxea salgai San Anton. 2 garbara. ☎ 76 46 22.

Pisua alokairuan Laredon.
☎ 76 13 86 (gauze).

Industri pabiloia alokairuan. 500 m². ☎ 76 43 37.

Pisua salgai Frontoian. 160 m². ☎ 76 24 42.

Pisua salgai baserri batean. 190 m². ☎ 76 03 43.

Pisua salgai herri-erdian. Kontsultarako egokia.
☎ 76 25 31.

Pisua alokairuan ekainetik irailera Donostian, Amaran.
☎ 76 31 79.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 15 49.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauze).

Etxea salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 50 50.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 79 37 80 (goizez).

DENETARIK

Bainuko altzariak oparitzen ditut. ☎ 76 44 34.

Renault 5 kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauze).

Mastin eta belgiar artzai txakurraren arteko txakurra oparitzen da. ☎ 76 47 45.

Umeentzako kapota eta paseorako aukia behar dut. ☎ 76 46 48.

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 76 45 57.

Lau urteko neskatila baten jertsei gorria (eskuz egindakoa) galdu da Zernai ondoan. ☎ 76 32 94.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 909 56 90 45/ 76 57 87.

Peugeot 205 kotxea (SS-AG) salgai. ☎ 71 61 21.

Kotxeko irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauze).

Kontsola bat salgai. 100 joku. ☎ 76 38 71.

Taxi plaza eskualdatuko nuke Bergaran. ☎ 76 44 04.

Honda Scoopy motorra salgai. ☎ 76 15 06.

GAC motorra salgai. 65.000 pezeta. ☎ 76 47 45.

LANA

Udan lan egingo nuke. ☎ 76 52 00.

Emakume euskalduna behar da bi pertsona heldu zaintzeko. ☎ 76 35 28.

Udan lan egingo nuke. ☎ 76 52 00.

Informatika klaseak ematen dira. ☎ 76 45 21.

Tabernan lan egingo nuke. ☎ 76 26 73 (Gloria).

Neska interna behar da andra bat zaindu eta etxeko lanetarako. ☎ 76 07 24.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 04 57.

1.go eta 2. hezkuntzako klaseak uztailean. ☎ 76 42 08.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 53 30 (gauze).

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

Informatika, fisika eta mate klaseak ematen ditut. ☎ 76 46 03.

Matematika, fisika eta kimika klaseak uztailean eta abuztuan. ☎ 76 70 40.

Neska euskaldun batek haurrak zaindu edo tabernari lanak egingo nituzke. ☎ 76 34 83 (Nerea).

Emakumea behar da andra bat zaindu eta etxeko lanetarako. ☎ 76 36 36.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. ☎ 76 29 81.

Haurrak zaindu, etxean lan egin edo tabernari aritzeko neska eskeintzen da. ☎ 76 04 34.

LARREA**TABERNA**Kale Barren, 17
ANTZUOLA**ARDATZA**
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

IBARGUREN PENTSUAKBIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

**BERGARA**
Karrozeriak**Txapa - Pintura**Zubieta, 46 **BERGARA**
☎ 76 12 31

BONOFOTOA



Jon Inclan

Jon Inclanek jaso du oraingo honetan BONOFOTOkoko saria, orain dela hamabost egun egindako galderak berak asmatu dituelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen auzoaren izena eta ze izen duten bertako jaiak galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Elosu auzoa eta Otaba jaiak** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jon Inclani** eman dizkiogu. Zorionak!!

Herriko zein plazatan dago orain dela hogeit hamar urte jarri zuten plaka hau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

A	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ARLOTEAK OILAGORRA	12	4	15	2
2.	MANITOU LAM	7	4	12	5
3.	MONGATXURRAK	6	3	8	6
4.	EZINLEIKE	6	4	9	8
5.	XURRUPAK	4	4	9	7
6.	LA JUVE	3	3	5	8
7.	ANGIOZAR	2	3	4	5
8.	COAR	0	3	2	16

B	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	BILBURBAREK OPEL/LAM	9	3	15	3
2.	MATXAKATEGI	6	3	3	3
3.	OSINTXU	6	3	6	7
4.	A ZE FLAXA ETXAGI	5	3	4	1
5.	ALTOS PORNOS	3	3	4	11
6.	FACUTA	2	3	3	4
7.	THE KILLERS	1	3	1	5
8.	SHAKTALE	1	3	2	7

EMAITZAK

EZINLEIKE-COAR	2-1
MONGATXURRAK-LA JUVE	1-5
ANGIOZAR-MANITOU LAM	1-1
ARLOTEAK OILAGORRA-XURRUPAK	3-3
SHAKTALE-MATXAKATEGI	0-1
THE KILLERS-A ZE FLAXA ETXAGI	1-1
OSINTXU-FACUTA	3-2
ALTOS PORNOS-BILBURBAREK OPEL/LAM	1-6
XURRUPAK-EZINLEIKE	5-0
MANITOU LAM-ARLOTEAK OILAGORRA	0-3

PARTIDUAK

Eguakitza 13

19:15: FACUTA-ALTOS PORNOS
20:30: BILBURBAREK OPEL/LAM-THE KILLERS

Astelehena 16

19:15: MATXAKATEGI-OSINTXU
20:30: A ZE FLAXA ETXAGI-SHAKTALE

Martitzena 17

19:15: EZINLEIKE-MONGATXURRAK
20:30: ANGIOZAR-COAR

Eguastena 18

19:15: ARLOTEAK OILAGORRA-LA JUVE
20:30: XURRUPAK-MANITOU LAM

Eguena 19

19:15: OSINTXU-A ZE FLAXA ETXAGI
20:30: THE KILLERS-SHAKTALE

Jokoz kanpo



IBON GARITANO

OSINTXU

ZELA DOA TXAPELKETA ZURE TALDEARENTZAT?

Oso ondo. Hiru partidutik bi irabazi baititugu.

POZIK TOKATU ZAIZUEN MULTZOAREKIN?

Biak nahiko antzerakoak dira.

GOLIK SARTU DUZU?

Ez.

SARTZEKO ESPERANTZARIK?

Bai. Halere, erdialdean edo atzealdean jokutzen dut eta zailtasun gehiago ditut.

JOKOZ KANPO ASKO EGITEN DUZU?

Gutxi. Taldean ez dugu hori ondo egiten, asko nahasten baikara.

ARBITRAIEKIN GUSTORA?

Bai.

ARBITRATUKO ZENUKE?

Ez, oso zaila da arbitratzea.

FABORITOAK?

Joan zen urtekoak eta Manitou Lam.

TXARTELIK JASO DUZU?

Ez.

ASKO PROTESTATZEN DUZU?

Gutxi, baina gehienbat nire buruarekin haserretzen naiz.

NOR FITXATUKO ZENUKE?

Igor Oruesagasti eta Joseba Larrañaga. Lesionatuta daude.

BERNA-BABESIK ERABILTZEN DUZU?

Ez.

ZE SISTEMA ERABILTZEN DUZUE?

4-4-2.

KOMENTARIOA

IPINTZAKO TXAPELKETAKO PROTAGONISTA NAGUSIA FUTBOLA DA; BAINA KIROLAZ GAIN, EURIA ERE PROTAGONISTA BIHURTZEN ARI DA AURTENGO TXAPELKETAN. ASTEAN BEHIN, GUTXIENEZ, SEKULAKO EURI ZAPARRADA JASAN BEHAR IZAN DUTE KIROLARIEK ETA EZ HORIEK BAKARRIK, BAITA EPAILE ETA MARRAZAINEK ERE. BEHEKO ARGAZKIAN IKUSI DEZAKEZUEN MARRAZAINAK ERE EURI JASA EDERRA SUFRITU BEHAR IZAN ZUEN MARTITZENEAN. ATERKINA ETA BANDERINA HARTU ETA KALEKO ERROPEKIN, JOKOZ KANPOKO JOKALDIK BIKAIN ADIERAZI ZITUEN. EGIA ESATEKO JAUZTEN ZEGOEN ZAPARRADAREKIN EZ ZUEN PARTIDU OSOA ZELAI ERTZEAN IRAUN ETA EZ DAKIGU KATARRORIK HARRAPATU ZUEN, BAINA ESKERTZEKO DA FUTBOLZALEEK ERAKUSTEN DUTEN BORONDATE ONA.



GOLEGILEAK

BERRIGARA

SARIA

5 Gol

Igor Alberdi (MANITOU LAM)
Juan Luis Etxaniz (BILBURBAREK OPEL/LAM)

4 Gol

Asier Alberdi (EZINLEIKE)

3 Gol

Harkaitz Arana (ARLOTEAK OILAGORRA),
Gustavo Abajo (BILBURBAREK OPEL/LAM),
Markos Alonso (OSINTXU), Gorka Davila (XURRUPAK).

2 Gol

Iñigo Herreros (LA JUVE), Peli Iturrigastillo (MANITOU LAM), Andoni Arroio eta Xabi Zangitu (MONGATXURRAK), Ibon Larrañaga (BILBURBAREK OPEL/LAM), Miguel Arregi (EZINLEIKE), Mikel Garitano eta Oier Bolibar (XURRUPAK), Josetxo Lizarralde (ALTOS PORNOS).

Aerobic erakustaldia

Udal Kirl Zerbitzuko aerobic ikastaroan dabilzanek aerobic erakustaldia eskainiko dute domekan 19:00etan frontoian. 8 urtetik 14ra arteko 57 lagun eta 14tik gorako beste 20 arituko dira eta 45 minutuko saioa eskainiko dute.

Musikaren lagutzaz, aerobic estilo esberdinak ikusteko aukera izango da. Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen ikastaroetan, aurten 140 bat lagun aritu dira Nuria Rodriguez monitorearen aginduetara Ipintza institutuko gimnasioan. Udarako, bestalde, ikastaro bereziak iragarri dira.

Bi txanda izango dira: lehenengoa, ekainaren 23tik uztailaren 4ra arte; bigarrena, ostera, uztailaren 7tik 18ra. Ikastaroak egunero izango dira, nagusientzat goiz eta arratsaldez eta 14 urtetik beherakoentzat arratsaldez bakarrik.



Futbitoko finala

A Ze Flaxa Etxagi (argazkian) eta Manitou taldeek jokatuko dute Labegaraietako futbito txapelketaren finala zapatuan arratsaldeko 6:30etan. Aurretik, 5:30etan Mongatxurrak eta Pagomendik 3. eta 4. postua erabakiko duen partidua jokatuko dute. Finalerdietan A Ze Flaxa Etxagik, asko kostata, 4 eta 2 irabazi zion Pagomendiri eta beste finalerdian Manitouk luzapenean 3 eta 1 irabazi zion Mongatxurraki. Finalerako ez dago faborito argirik eta A Ze Flaxa Etxagiren esperientziak Manitouren gatzetasun eta indarrari aurre egin beharko dio. Finalaren ondoren sari banaketa ekitaldia egingo da.



900 bat haur Bergaran

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gipuzkoako Mendi Federakuntzak antolatutako Finalistaren egunean Gipuzkoa osotik etorritako 900 haur inguru bildu ziren joan zen igandean Bergaran. Haurrek urte osoan egindako irteerei bukaera emateko antolatzen da Finalistaren eguna eta mendizale gazteak

San Martzialetik pasatuz Elgetatik Seminarioko patioraino dagoen ibilbidea bete behar izan zuten. Ibilialdiaren ondoren Seminariono patioan urte osoan zehar egindako lana aitortu eta eskertzeko haurrei sariak banatu zizkieten. Azpimarratzekoa da Pol-Polekoek egindako lana, ez baita erreza horrenbeste jenderentzako ekitaldi bat antolatzea eta hain ondo irtetzea.



Futbito
NESKEN
TXAPELKETA

EMAITZAK

LTB-Burdinezko Damak. 4-4
Blue Star-Potzu. 1-2
PWA_The Hurrricanesr. 3-0
Gu Geu-Power Rantxeras. 0-3

PARTIDUAK

Power Rantxeras-Potzu
Igandoa. 12:00. Miguel Altuna.
PWA-Burdinezko Damak
Igandoa. 12:00. Miguel Altuna.
The Hurrricanes-Nahikari
Igandoa. 13:00. Miguel Altuna.
Gu Geu-LTB
Igandoa. 13:00. Miguel Altuna.

PENALTIAK

Eider Ruiz
BLUE STARS

**ZEIN DA TXAPELKETAKO
JOKALARIRIK ONENA?**

Saioa Bolibar

ETA TALDEA?

Gu Geu.

**ZE POSTUTAN GUSTATZEN ZAIZU
JOKATZEA?**

Ate azpian.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

De Pedro

DE PEDRO ALA ALKIZA?

De Pedro

BESTE KIROLIK EGITEN DUZU?

Ez.

GOLEGILEAK

Silvia Valor

26 gol.

Uxue Lazkano

25 gol.

Aitziber Montaña

24 gol.

Igoitz Gabilondo

Euskadiko txapelkunordea

Igoitz Gabilondo Lokatza elkarteko txirrindularia da eta Getxon lehen mailako kadeteentzat jokaturako Euskadiko txapelketan bigarren postua lortu du. San Blasen bizi den txirrindularia denboraldi bikaina egiten ari da, lasterketa askotan 3 onenen artean sartu baita.

- Zer moduz Getxoko lasterketa?

- 6 kmko zirkuito bati 7 itzuli eman behar izan genion eta bukaera aldapa batean zegoen eta esprintean galdu nuen. Halere oso pozik nago egingako lasterketarekin.

- Euskadiko txapelketaz gain, postu onak lortu dituzu?

- Bai, 5 edo 6 lasterketa 3 onenen artean bukatu dut. Orain 4 lasterketa geratzen zaizkit denboraldia bukatzeko eta gero oporrak hartuko ditut.

- San Blasen bizitza eraginkor badu?

- Igotzea asko gustatzen zait eta ez dakit igarriko den San Blasen bizitza, baina igotzen hobeto moldatzen naiz.

- Entrenamenduen ondoren aldapa bizikletan igotzen duzu?

- Kilometro asko egin ondoren igartzen da aldapa, baina erabiltzen ditugun zapatekin ezinda igo eta bizikletan igo behar.

- Zein da gehien gustatzen zaizun txirrindularia?

- Ez daukat txirrindulari favoritorik.

- Tourra zeinek irabaziko du?

- Ea Olanok zer egiten duen, halere ez dut uste irabaziko duenik.

- Taldeka erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketan 3. postua lortu zenuten. Lasterketetan taldeko lana egiten duzue?

- Ez, gure mailan bakoitza ahal duena egiten saiatzen da.

- Zenbat entrenatzen duzu?

- Asteazkera bi egun entrenatzen dut eta irteera bakoitzeko 60 km inguru egiten ditut.

- Nahikoa da hori?

- Bai, oso ondo nabil

eta. Halere denbora daukadanean ordu gehiago entrenatzen ditut.

- Ziklista izatea gustatuko litzaizuke?

- Bai, baina oso zaila da. Oraingoan ikasten jarraituko dut eta gero ikusiko dugu.

- Materiala garestia dela iruditzen zaizu?

- Bai, konponketek diru asko kostatzen dute.

- Bizikletan erortaririk izan duzu?

- Ez, zorte handia izan dut. 3 urte daramatzat bizikletan eta ez dut istripurik izan.

- Ze bizikleta marka gustatzen zaizu?

- Pinarello.



"Asteazkera bi entrenamendu egiten ditut".

"Entrenamendu ostean San Blasera igotzea oso gogorra da"



Argazkia: Juan Luis Gonzalez

Matxiategiko lagunak, 1983

Batek baino gehiagok, argazkia ikusita, batzuentzat urteak ez direla pasatzen esango du baina goiko argazkia atera zenetik dagoeneko 14 urte igaro dira. Matxiategiko kuadrila honetako lagunak gaztetasunaren formula aurkituko zuten agian. Kontua da 16-17 urte zituztenean, zapatu arratsaldetan, San Blas auzora joateko ohitura zutela. Mieka baserri inguruan txanpinoiak eta gaztainak jaso ondoren, afari-merienda ederrak egiten zituzten lagunartean. Makutoa gaztainaz eta txanpinoiez bete eta buelta etxera. Suerterik izaten ez zuten egunetan, pentsatzen dugu ohiko bokadiloarekin konformatu beharko zirela... Horra hor Juan Luis Gonzalezek 1983ko udazkenean ateratako argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Jose Alberto Eguren, Enrique Nieto, Jabier Garmendia, Gabriel Etxaniz, Rafael Salazar eta Iosu Arevalillo.

Makurtuta: Iosu Lazpiur, Jose Balanzategi eta Miguel Manso.

Industria
homikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Jaime Ezkurra dugu Royal Canin txakurrendako janari-etxeak egin duen zozketaren 5 irabazleetako bat; Combi Philips telebista eta bideoa tokatu zaizkio.

Zorionak!

**ROYAL CANIN**
TXAKUR ETA KATU-JANA

Julen Narbaiza Igarzabal
Haziak eta pentsuak

Masterreka, 22 behea Bergara. Tf. 76 54 26



Aprobetxatu udaldia
GIDA BAIMENA
ateratzeko

*Izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*

**ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A

Artekalea, 22 BERGARA / Tf. 76 16 63

Santa Ana ELGOIBAR / Tf. 74 10 11

sofa leku

a. eme... interiores



STOKKE
DANES FOR BARN OG VOKSNE



centro hogar muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92